## Videoteca de Baketik

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as… Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en www.baketik.org)

# Loreak

## Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Loreak.

AÑO: 2014.

DURACIÓN: 99 min.

PAÍS: Euskadi.

DIRECCIÓN: Jon Garaño, Jose Mari Goenaga.

REPARTO: Nagore Aranburu, Itziar Aizpuru, Itziar Ituño, Josean Bengoetxea, Ane Gabarain, Egoitz Lasa, Jox Berasategui, Gotzon Sánchez, José Ramón Soroiz.

PRODUCCIÓN: Irusoin/ Moriarti Produkzioak.

## Sinopsis

La vida de Ane da un giro cuando semanalmente comienza a recibir de forma anónima un ramo de flores en su casa. Por su parte las vidas de Lourdes y Tere también se ven afectadas por unas misteriosas flores. Un desconocido deposita cada semana un ramo en memoria de alguien que fue importante en sus vidas. Esta es la historia de tres mujeres, tres vidas alteradas por la mera presencia de unas flores. Flores que harán brotar en ellas sentimientos que parecían olvidados… Pero al fin y al cabo, no son más que flores.

## Temática

### Memoria, símbolos, incomunicación

**Memoria**. La película trata sobre los recuerdos y el olvido. Presenta los esfuerzos de algunos por rebelarse contra el olvido, la necesidad de otros de olvidar lo antes posible e incluso de crear unos recuerdos desde cero. Pero así como no podemos evitar el olvido, tampoco podemos forzarlo. La memoria sigue su propio cauce y ritmo, imponiéndose a nuestra voluntad.

**Símbolos**. Un mismo objeto puede tener significados radicalmente diferentes según el contexto en el que se presente, quien lo mire o quién sea su receptor. Así, Loreak es una película plagada de flores, en la que los personajes recurren a las mismas para expresar lo que no saben decir mediante palabras.

**Incomunicación**. La película hace hincapié en el carácter hermético de unos personajes desorientados ante la vida que resultan inaccesibles para su entorno más cercano.

## Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película…

**…hacia adentro.** Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

**…hacia fuera.** Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

**…no solo con la cabeza, también con el corazón.** Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

**…y después de algún tiempo repensar.** Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

## Algunas preguntas…

**…antes de la película**

·Sobre la memoria: ¿Qué rituales y celebraciones utilizamos para mantener vivo el recuerdo de las personas queridas que han fallecido? ¿Es posible olvidar deliberadamente un recuerdo que nos produce dolor?

·Sobre la simbología de las flores: ¿Cuál es el significado de un ramo de flores? ¿Puede cambiar su significado según el contexto? ¿Qué te sugiere un ramo de flores recibido de un remitente anónimo? ¿Y unas flores depositadas en la cuneta de una carretera?

·Sobre la incomunicación: ¿Realmente conocemos a las personas con las que convivimos?

**…después de la película**

·¿Quién envía flores todas las semanas a Ane? ¿Con qué fin? ¿Qué reacciones genera en ella y su entorno? ¿Qué motiva a Ane a depositar periódicamente flores en la cuneta de la carretera? ¿Qué representan esas flores?

·¿Cómo reacciona Tere ante la muerte de su hijo? ¿Consigue su objetivo? ¿Qué te sugiere la frase "una persona solo muere cuando se va de nuestros recuerdos"?

·¿Cuál es la actitud de Lourdes ante la muerte de su pareja? ¿Por qué actúa así? ¿Consigue su objetivo?

Con la colaboración de Maite Aseginolaza

baketik

**zeurekin eta besteekin bizitzeko** zinema

# Loreak




baketik


EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

943-251005

www.baketik.org

## Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak… Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

# Loreak

## Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Loreak.

URTEA: 2014.

IRAUPENA: 99 min.

HERRIALDEA: Euskadi.

ZUZENDARIA: Jon Garaño, Jose Mari Goenaga.

AKTORE-ZERRENDA: Nagore Aranburu, Itziar Aizpuru, Itziar Ituño, Josean Bengoetxea, Ane Gabarain, Egoitz Lasa, Jox Berasategui, Gotzon Sánchez, José Ramón Soroiz.

EKOIZPEN-ETXEA: Irusoin/ Moriarti Produkzioak.

## Sinopsia

Aneren bizimodua goitik behera aldatuko da, astero-astero, modu anonimoan etxean lore-sorta bat jasotzen hasten denean. Lore misteriotsu batzuek aldatu egingo dituzte Lourdesen eta Tereren bizimoduak ere. Ezezagun batek lore-sorta bat utziko du astero, eurentzat garrantzitsua izandako norbaiten oroimenez. Hiru emakumeren istorioa da hau; lore-sorta xume batzuek goitik behera aldatuko dituzten hiru bizimodu. Lore horiek ahaztutzat zituzten sentimenduak azaleratuko dituzte… Baina, azken batean, loreak baino ez dira.

## Gaiak

### Oroimena, sinboloak eta inkomunikazioa

**Memoria**. Pelikulak oroitzapenak eta ahanztura lantzen ditu. Batetik zenbaiten ahanzturaren aurka borrokatzeko esfortzuak aurkezten dizkigu, bestetik hainbatek lehen bait lehen ahazteko duten beharra edo zerotik oroitzapenak sortzeko beharra ere azaltzen ditu. Baina ahaztea eragotzi ezin dezakegun moduan, oroimena behartu ere ezin dugu egin.

**Oroimenak** bere bidea eta erritmoa jarraitzen ditu, gure borondateaz haratago. Sinboloak. Objetu berak esanahi guztiz desberdinak izan ditzake aurkezten den testuinguruaren, nork begiratzen duen edo nork jasotzen duenaren arabera. Honakoa lorez beteriko filma da. Pertsonaiek loreak erabiliko dituzte hitzez esaten ez dakiten hori adierazteko.

**Inkomunikazioa.** Izaera itxia duten pertsonaiak azpimarratzen ditu filmak. Bizitzaren aurrean orientazioa galduta dabiltza eta heuren ingurukoentzako hurbilgaitzak suertatzen dira.

## Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

**…barrura begira.** Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

**…kanpora begira.** Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

**…ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere.** Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

**…eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu.** Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

## Zenbait galdera…

**…pelikula ikusi aurretik**

·Oroimenari buruz: Ze errito eta ospakizun erabiltzen ditugu hildako pertsona maiteen oroitzapena bizirik mantentzeko? Posible al da min ematen digun oroitzapen bat nahita ahaztea?

·Loreen sinbologiari buruz: Zein da lore-sorta baten esanahia? Testuinguruaren arabera bere esanahia alda liteke? Zer iradokitzen dizu bidaltzaile anonimo baten lore-sorta bat jasotzeak? Eta errepide ertzean utzitako lore-sorta batek?

·Inkomunikazioari buruz: Benetan ezagutzen al ditugu gurekin bizi diren pertsonak?

**…pelikula ikusi ondoren**

·Nork bidaltzen dizkio astero loreak Aneri? Ze helburuarekin? Nola erreakzionatzen du Anek? Eta bere inguruak? Zerk bultzatzen du Ane aldiro errepide ertzean loreak uztera? Zer adierazten dute lore horiek?

·Nola erreakzionatzen du Terek bere semearen heriotzaren aurrean? Bere helburua lortzen al du? Zer iradokitzen dizu honako esaldiak? "pertsona bat gure oroimenetik desagertzen denean hiltzen da".

·Zein da Lourdesen jarrera bere bikotearen heriotzaren aurrean? Zergatik jokatzen du horrela? Bere helburua lortzen al du?

Maite Aseginolazaren laguntzarekin.

baketik

Cine para ***vivir y convivir***

# Loreak




baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

943-251005 www.baketik.org